

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15

Tolosako Udaletxean, 2003ko apirilaren 15ean, arratsaldeko zazpitan deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura egiteko. Antton Izagirre Gorostegi Korporazioko alkate-lehendakaria izan da mahaiburu, eta eguneko gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa a las diecinueve horas del día 15 de abril de 2003 se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde Antton Izagirre Gorostegi y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Antton Izagirre Gorostegi

Bertaratutako zinegotziak:

Miren Nekane Eizagirre Odriozola
Aitor Iztueta Garaikoetxea
Begoña Aldalur Urdanpilleta
Iñaki Elduaian Ugartemendia
Silvana Ostiza Goikoetxea
Gotzon Lopez Lorenzo

Jose M^a Agirre Eskisabel
Jokin Bildarratz Sorron
Aitzol Arozena Zufiria

Ez bertaratutakoa:

Jose Gurrutxaga Segurola
Antxon Gonzalez Monfort
Maite Urbistondo Insausti
Amaia Etxaniz Etxeberria

Juan Carlos Araniguria Rodrigo
Angel Bernardo Yañez Ares
Oscar Hugo Renedo Nieto

Behin-behineko idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea:

Jose Manuel Olazabal Martinez

Eguneko gai zerrenda

- 1.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea: 2003ko martxoaren 25etik apirilaren 9ra bitartekoak (325/2003-434/2003).
- 2.- Udaltzaingoko langile baten bateragarritasun eskaera.
- 3.- Udal arkitektoaren bateragarritasun eskaera.
- 4.-Tolosaldeko HITZAri dirulaguntza ematea.
- 5.- Tolosa C.F.rekin hitzarmena

Orden del día

- 1.- Dar cuenta de los Decretos emitidos por la alcaldía desde el 25 de marzo de 2003 al 9 de abril de 2003 (325/2003-434/2003).
- 2.- Solicitud de compatibilidad de un agente municipal.
- 3.- Solicitud de compatibilidad de la arquitecta municipal.
- 4.- Subvención a Tolosaldeko HITZA.
- 5.- Convenio con el Tolosa C.F.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15

- 6.- Moción(es) sobre Iraq.
7.- Galderak eta eskaerak.

- 6.- IRAK-i buruzko mozioa(k).
7.- Ruegos y preguntas.

Lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

Se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea: 2003ko martxoaren 25etik 2003ko apirilaren 9ra bitartekoak (325/2003-434/2003).

1.- Dar cuenta de los Decretos emitidos por la alcaldía desde el 25 de marzo de 2003 al 9 de abril de 2003 (325/2003-434/2003).

Alkatetzak 2003ko martxoaren 25etik 2003ko apirilaren 9ra egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei (325/2003-434/2003), eta Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

2.- Udaltzaingoko langile baten bateragarritasun eskaera.

2.- Solicitud de compatibilidad de un agente municipal.

2 eta 3 gaiak batera tratatzen dira.
Eztabaidaren atalean honako partehartzeak izan dira:

- ... Alkatea (EH): hitza hartu du esateko bateragarritasunaren onarpenak zabaltearen kontrakoak direla, eta pluriempleoaren arriskuan ez erortzeko neurriak hartu beharko liratekeela.
- ... Jokin Bildarratz Sorron, EAJ alderdiko zinegotzia, bateragarritasunaren kontra azaldu da nahiz eta legearen aginduz aurkeztutako proposamenak onartuko dituen. Eta koherentziaz jokatzeko hurrengo lanpostu balorazioan neurriak hartu beharko liratekeela bidezko konplementuekin jokatzu.

Nestor Moreno Ausin jaunak, 2003ko martxoaren 14an, eskaera bat aurkeztu du non jarduera pribatua egikaritzeko bateragarritasuna eskatzen duen. Bateragarritasun hori merkataritza jardueran aritzeko da.

Eskaera, 2003ko martxoaren 27ko Pertsonal batzordean aldeko diktamena jaso ondoren, 2003ko martxoaren 31n egin zen Ohizko Bilkuran, mahai gainean utzi zen Komiteak bateragarritasuni buruz aurkeztu zuen idatzian, Udalbatzaren eskuetan horrelako bi kasu zeudenez erabakitzeko, gaia mahai gainean utzi eta berriro Pertsonaleko Batzordean tratatzea eskatzen zuen.

Kontutan hartuta abenduaren 26ko 53/1984 legea, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasuna arautzen duena eta

Hori horrela, gaia berriro aztertu eta 2003ko apirilaren 15eko aldeko diktamena jaso ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Tolosako Udaleko udaltzaina den Nestor Moreno Ausin jaunari bateragarritasuna

2003.04.15

onartzea, merkataritza jardueran aritzeko.

Bigarrenik. Interesatuak bateraezintasun legediak galdutako betekizun guztiak bete beharko ditu.

Hirugarren: Akordia interesatuari eta Pertsonal departamentuari jakinaraztea.

3.- Udal arkitektoaren bateragarritasun eskaera.

3.- Solicitud de compatibilidad de la arquitecta municipal.

Ainara Sagarna Aranburu andreak, 2003ko martxoaren 12an, eskaera bat aurkeztu du non jarduera pribatua egikaritzeko bateragarritasuna eskatzen duen. Eskaera bertan aipatzen ez bazen ere, jarduera pribatua arkitekto lanak egiteko eskatu zuen.

Eskaera, 2003ko martxoaren 27ko Pertsonal batzordean aldeko diktamena jaso ondoren, 2003ko martxoaren 31n egin zen Ohizko Bilkuran, mahai gainean utzi zen Komiteak bateragarritasuni buruz aurkeztu zuen idatzian, Udalbatzaren eskuetan horrelako bi kasu zeudenez erabakitzeko, gaia mahai gainean utzi eta berriro Pertsonaleko Batzordean tratatzea eskatzen zuen.

Kontutan hartuta abenduaren 26ko 53/1984 legea, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasuna arautzen duena eta

Hori horrela, gaia berriro aztertu eta, 2003ko apirilaren 15eko aldeko diktamena jaso ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Tolosako Udaleko arkitektoa den Ainara Sagarna Aranburu andreari bateragarritasuna onartzea, hirigintza arloko lanak egiteko (asesoramendua, obra zuzendaritza, proiektuen erredakzioa...)

Bigarrenik: Interesatuak bateraezintasun legediak eta Udaleko lanpostu zerrendan galdutako betekizun guztiak bete beharko ditu.

Hirugarren: Akordia interesatuari eta Pertsonal departamentuari jakinaraztea.

4.- Tolosaldeko HITZari dirulaguntza ematea.

4.- Subvención a Tolosaldeko HITZA.

Partehartze atalean honako hauek izan dira:

... Jose M^a Agirre Eskisabelek (EAJ) esan du: " ez dugu uste kasualitatea denik 7 pertsonak huts egitea Pleno honetan". Beste norbaitek 7+3 =10 zela esan zuen; nik esango nuke 4+2 =6 ." "Ez dut pentsatzen honelako ekintzan huts egitea kasualitatea denik". Bere taldeak, Tolosaldeko Hitza, diruz laguntzeko erabakiaren arrazoiak aurkeztu ditu: "Lehen - Egunero- egunkariari diru laguntza eman zitzaion, beti bi irizpide kontutan izanik: aniztasuna eta bideragarritasun ekonomikoa. Eta ildo horretatik jarraitu behar dugu".

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15

Era berean azaldu du, asko sufritu dutela gai honekin bere koalizioko lankideen jarreragatik, eta gustatuko litzaiokeela bakoitzak bere iritzia agertzea plenoan. Bere pena azaldu du aukera hori posible izan ez delako.

- ... Antton Izagirrek (EH) azaldu du, laburbilduz, dirulaguntza emateko arrazoia, Euskara eta Hezkuntza Batzordeko diktamenean agertutako berbera. Jarraitu du esanez ez duela ikusten atzerapausua bezala beste alderdiak ez egotea desberdintasunak gainditu egin behar direlako, eta esperantza agertu du, kontsensu honetara salto egiteko. Hemendik deia egiten du honetarako: "gaurko ausentziak izan daitezzen hurrengo presentzien aurrekari" Alkatearen iritziz, bailarako egunkariak herritarren onspena jaso du.

Euskara eta Hezkuntza batzordeko diktamena hau da:

"Euskaldunon Egunkaria itxi ondoren, Tolosaldean Eguneroko arduraradunek(gaurko Hitza) Tolosako Udalarari azaldu zizkion zer nolako ondorioak ekarri zizkien eta honako eskaera zehatz egin zion Tolosako Udalarari.

Euskaldunon Egunkaria Tolosaldean Eguneroko editatzen duen enpresako bazkideetako bat da, eta zenbait garaitan koltxoi finantziero ezinbestekoa izan da Tolosaldean Eguneroren ibilbidean, besteak beste, diru laguntzak etorri bitarteko aldietan, harpidedunei kobratu aurreko sasoiari. Gaur egun, Tolosaldean Eguneroko babesik gabe geratu da, eta horrek beren plangintza finantzieroa mugiaraztera behartu du:

2003. urterako, Tolosaldean Egunerok 420.708 €ko aurrekontua du (70 milioi pta).

Honakoak dira aurreikusten dituen diru sarrerak:

- Harpidedunak: 108.182 € (18 milioi pta)
- Gipuzkoa Diputazioak: 30.050 € (5 milioi pta)
- Eusko Jaurlaritzak: 42.070 € (7 milioi pta)
- Publizitatea: 120.202 € (20 milioi pta)
- Tolosaldeko udalak 120.202 € (20 milioi pta)

Diru sarrerak eta irteerak bat baldin badatoz, non dago arazoa? Diru laguntzak eta harpidetzak kobratzeko garaian eta horiek kobratu bitartean irauko ahalmenean: hortxe dago arazoa.

Diputazioaren diru laguntzaren % 60eko ekainean kobratu da, falta dena hurrengo urteko urtarrilean. Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzaren % 85a urrian kobratuko da, %15a 2004ko urtarrilean. Harpidetzak ia egin moduan, ekaina eta uztailen kobratuko dira, aparteko soldata aprobetxatuz (lehenago ezin da, Egunkariarentzat diru-bilketa ere egingo delako eta Korrika ere martxan dagoelako). Publizitateko diruak hilero berdintsu jasotzen dira, baina ez dira nahikoa soldata, inprimategi gastu eta abarri aurre egiteko. Hortaz, Tolosaldeko udalek ahalik eta azkarren diru laguntza ematea da geratzen den bide bakarra, Tolosaldean Egunerok arazo finantzierorik izan ez dezan ekaina bitartean egoki eusteko proiektuari.

Lehen adierazi bezala, arazo hauek Euskaldunon Egunkariak babesten zituen eta ez zen problemarik izaten; orain problema dago, babeslerik gabe utzi duelako Estatuak.

Gaia eztabaidatu eta kontutan izanik 2003ko martxoaren 13an Euskara eta Hizkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin, Udalbatzak, 10 aldeko botoekin (S. A. eta EAJ), aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Euskara eta Hezkuntza batzordeko diru laguntzen partidan Tolosaldean Egunerok (egungo Tolosaldeko Hitza) eskatutakoari erantzuteko adina diru badagoenez, partida horretatik

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15

48.000 €ko diru laguntza ematea ahalik eta azkarren.

Bigarren: Kontuan izanda aurrekontu luzatuak ditugula, eta aintzat hartuta beste behar batzuei ere aurre egin beharko diegula, urtero egin izan dugun bezala, hurrengo kreditu aldaketan Udalak ontzat jo ditzakeen beste hainbaten beharrak ere egoki asetzeko adinako diru laguntzak izateko borondatea agertzea.

5.- Tolosa C.F.rekin hitzarmena.

5.- Convenio con el Tolosa C.F.

Gai honi buruzko partehartzeak honako hauek izan dira:

- ... Antton Izagirrek Gorostegik(EH) esan du, inbertsio desberdinak egiteko konpromisoa hartu zutela, eta bere asmoa, denak lotzen joatea dela. Konbenioak talde guztien borondatea biltzen duela esan du.
- ... Jokin Bildarratz Sorronek (EAJ) zera adierazi du: Usabal eta Berazubiren artean kirol eskaintza osoa ematea dela asmoa, eta bide honetatik, konbenioaren sinaketa hau horren baitan dagoela.

Tolosa Futbol Club” Kirol Elkarteak, 30 urterako utzi zion Tolosako Udalarari atletismoko pistaren gaineko errentamendu eskubidea, hau da, 2016. urtera arte.

Lagapen honen ondorioz, jabeari, Muñoa Fundazioari, ezarritako errentak ordaindu dizkio Udalak eta atezainaren lana, pistaren mantenimendua eta argiztapenaren energia elektrikoaren kontsumoa erregulatu ditu.

Ondotik, atletismoko pista konpondu eta egokitu egin behar zela ikusita, Udalak 35.661.393 pezetako diru-laguntza eman zuen, aipameneko obrak egiteko, 2000ko abuztuaren 22an sinatutako hitzarmenaren arabera.

2002an Udalak 64.488,60 euro (10.730.000 pezeta) jarri zituen zelaian egindako drainadurako eta 7.897,93 euro (1.313.107 pezeta) atletismoko pistako jaurtiketa eremuetan eginiko lanetarako.

Orain, “Tolosa Futbol Club” taldeak estadioko argiztapen instalazio berria jarri nahi du, era horretan instalazio guztiak hobeto aprobetxatzeko, bai atletismokoak, bai futbola eta barruti honetan egiten diren gainerako aktibitateetarako erabiltzen direnak.

Hobekuntza hauek guztiak kirola egitera bultzatzeko balioko du, jakinik zerbitzu hau eskuduntza lokalari dagokiola, Oinarrien Legearen 25. artikuluko m) atalaren eta gai honen gainean indarrean dauden Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legediaren arabera.

Hau guztia dela eta, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenik: Berazubi estadioko argiztapen instalazio berria finantzatzea, eta helburu horrekin, “Tolosa Futbol Club” taldearekin akta honi lotuta doan lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Bigarren: Erabaki honen berri interesatuari, Kirol departamentuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

6.- Moción(es)sobre Iraq.

6.- IRAK-i buruzko mozioa(k).

2003ko martxoaren 31an egin zen Ohizko Osoko bilkuran, gai zerrendatik kanpo, PSOE, EAJ eta S. A. alderdiek Iraken aurkako gerra salatzeko mozio bana aurkeztu zuten. Gaiaren garrantzia ikusirik erabaki zuten hurrengo bilkurako mozio adostua aurkeztea.

Beraz, behin behineko idazkariak, S.A., EAJ eta PSOE alderdiak adostutako mozioa irakurtzeari ekin dio.

Hitzez hitz honela dio:

"Badira dagoeneko 27 egun AEB eta Erresuma Batuen eskutik Iraken aurkako inbasio operazio basatiak martxan direnak. Besteak beste Aznarren Gobernuaren babesarekin aurrera doan genozidio honen aurrean, eta orain, datozen egunetan, Siriara zabal daitekeen konfliktoa izanik, honako oinarritzko puntu hauek aurkezten zaizkio Osoko Udal Batzarrari, bertan onartuak izan daitezten:

- 1.- *Tolosako Udalak ezezko borobila ematen dio AEB-k eta Erresuma Batuek Iraken aurka egindako erasoari. Inperialismoan oinarritutako genozidio hau bertan behera uzteko exijitzen du Udal honek.*
- 2.- *Udal honek gerra honi legearen kontrakoa, ezmorala eta legez kanpoko deritzo.*
- 3.- *Tolosako Udalak bereziki Espainiar estatuko Gobernuak eraso horri ematen dizkion laguntza politikoa eta materiala salatu nahi ditu. "*
- 4.- *Gatazka konpontzeko bidea elkarrizketa dela aldarrikatzen du Tolosako Udalak, eta herrien arteko justizia eta errespetuan oinarritutako nazioarteko harremanak gauzatzeko, ezinbestekoa dela herrien eskubideak errespetatzea.*
- 5.- *Gogor salatzen ditu eraso honen atzean dauden benetako interesak, hain zuzen ere, interes ekonomiko hutsak. Diktadura gogorraren eta bahimendu krudelaren ondorio latzak aspalditik sufritzen ari den herri bati eraso egin dio, herrialde batzuen laguntzarekin, munduko lehenengo potentzia militarrek.*
- 6.- *Eraso hau proiektu menderatzaile baten beste urrats bat del a salatu nahi dugu. Halaber, proiektu hau sustatu, finantzatu eta bere etekin ekonomikoak gizontzea beste helbururik ez duten enpresak ere salatu nahi ditugu. Eraisketarekin aberastu diren berberak dira berreraikitzearen onuradunak.*
- 7.- *Biziro kezkatzen dute legez kanpoko gerra honen ondorioek, uste baitu eragina izango duela nazioarteko ordenan eta munduko bakean eta elké.Irbizitzan, bai eta oso garrantzitsuak diren erakunde batuen etorkizunean ere, adibidez, Nazio Batuen Erakundeetan eta Europako Batasunean.*
- 8.- *Tolosako Udalak herritarrei dei egiten die parte har dezaten Ameriketako Estatu Batuek antolatu duten eraso inperialistari aurre egiteko deituak dauden mobilizazioetan.*

ESKAERA

- 1.- *Eraso bortitz honen lekukotasuna jasotzera Irakera joan diren brigadistek elkartasuna adierazi eta, inbaditzaileen helburu militar direnez, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu beharrezkoak diren bitartekoak jarri ditzala, euskal brigadistak lehenbailehen etxeratuak izan daitezten.*
- 2.- *Basakeria honen arduradunak Nazioarteko Auzitegi penalaren aurrean erantzun dezatela eskatzea.*
- 3.- *Inbasio honen berri eman duten kazetari independente guztiei gure elkartasuna adieraztea, bereziki zendu berri diren kazetarien lankide eta senitartekoei".*

Jarraian, bozketari ekin diote eta Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU** mozioa **onartzea**.

2003.04.15

7.- Galderak eta eskaerak.

Atal honetan ez da izan ez galderarik , ez eskaerarik.

Besterik gabe, iluntzeko zortzietan bilera bukatutzat eman du.

ALKATEA

7.- Ruegos y preguntas.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las veinte horas.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15

2003KO APIRILAREN 15EKO UDALBATZAK TOLOSA C. F.

HITZARMENARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN ERANSKINA

2003.04.15

Tolosan, bi mila eta hiruko maiatzaren hamairuan.

BILDURIK

Batetik, **ANTTON IZAGIRRE GOROSTEGI JAUNA**, adinez nagusia, 15.902.702 L NAN zenbakia duena, **TOLOSAKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARI** gisa eta Udala ordezkatzuz, apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarrien Erregulatzaileraren 7/85 Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/99 Legearen 21.º artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Eta bestetik, **JON ALDAZABAL ETXEBERRIA JAUNA**, ADINEZ NAGUSIA, 15.987.472 NAN zenbakiaren jabea, **TOLOSA F.C.**aren ordezkari gisa.

Ados jarri dira, bi alderdiek behar bezalako gaitasun legala dutela ikusirik, kontratu hau aurrera eramateko ondorengo aurrekarietan oinarrituz.

AURREKARIAK

I.- "Tolosa Futbol Club" Kirol Elkarteak, 30 urterako utzi zion Tolosako Udalariei atletismoko pistaren gaineko errentamendu eskubidea, hau da, 2016. urtera arte.

Lagapen honen ondorioz, jabeari, Muñoa Fundazioari, ezarritako errentak ordaindu dizkio Udalak eta atezainaren lana, pistaren mantenimendua eta argiztapenaren energia elektrikoaren kontsumoa erregulatu ditu.

II.- Ondotik, atletismoko pista konpondu eta egokitu egin behar zela ikusita, Udalak 35.661.393 pezetako diru-laguntza eman zuen, aipameneko obrak egiteko, 2000ko abuztuaren 22an sinatutako hitzarmenaren arabera.

III.- 2002an Udalak 64.488,60 euro (10.730.000 pezeta) jarri zituen zelaian egindako drainadurako eta 7.897,93 euro (1.313.107 pezeta) atletismoko pistako jaurtiketa eremuetan eginiko lanetarako.

IV.- Orain, "Tolosa Futbol Club" taldeak estadioko

En Tolosa a, trece de mayo de dos mil tres.

REUNIDOS

De una parte, **D. ANTON IZAGIRRE GOROSTEGI**, mayor de edad, con D.N.I. nº 15.902.702 L, en calidad de **ALCALDE – PRESIDENTE DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**, actuando en nombre y representación del mismo, en virtud de las facultades conferidas por el artículo 21.º de la Ley 11/99, de 21 de Abril, de modificación de la Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Y de otra, **D. JON ALDAZABAL ETXEBERRIA**, mayor de edad, con D.N.I. nº 15.987.472, en nombre y representación del **TOLOSA CF**.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad legal para llevar a efecto el presente contrato en base a los siguientes

ANTECEDENTES

I.- La Sociedad Deportiva "Tolosa Fútbol Club" cedió al Ayuntamiento de Tolosa el derecho de arrendamiento sobre la pista de atletismo, por el plazo de 30 años, plazo que finalizará el 2016. Por la cesión se ha venido abonando por el Ayuntamiento al propietario, Fundación Muñoa, las rentas estipuladas, y se han regulado las labores de conserje, mantenimiento de la pista y el consumo de energía eléctrica por alumbrado en las horas que la pista sea utilizada.

II.- Posteriormente, considerando que era necesario acometer nuevos trabajos para reacondicionar la pista de Atletismo, el Ayuntamiento, para la financiación de tales obras, concedió una subvención de 35.661.393 pesetas, según convenio que se formalizó el 22 de agosto de 2000.

III.- En el año 2002 el Ayuntamiento ha aportado 64.488,60 euros (10.730.00 pts.) en el drenaje realizado en el campo, y 7.891,93 euros (1.313.107 pts.) para los trabajos realizados en las zonas de lanzamiento de la pista de atletismo.

IV.- Ahora, el Tolosa Club de Fútbol pretende efectuar una nueva instalación de iluminación del

argiztapen instalazio berria jarri nahi du, era horretan instalazio guztiak hobeto aprobetxatzeko, bai atletismokoak, bai futbola eta barruti honetan egiten diren gainerako aktibitateetarako erabiltzen direnak.

V.- Hobekuntza hauek guztiak kirola egitera bultzatzeko balioko du, jakinik zerbitzu hau eskuduntza lokalari dagokiola, Oinarrien Legearen 25. artikuluko m) atalaren eta gai honen gainean indarrean dauden Estatu eta Autonomia Erkidegoko legediaren arabera.

Hau guztia dela eta, Udala prest dago argiztapen instalazio berria finantzatzeko, eta helburu horrekin, parte hartzen duten bi alderdiek LANKIDETZA HITZARMEN hau egiten dute ondorengo klausulak ezarrita:

KLAUSULAK

LEHENA- "TOLOSA CLUB de FUTBOL" kirol elkarteak Berazubi estadioa argiztatzeko lanak egiteko konpromisoa hartzen du. Lan hauek dokumentu honen eranskinean agertzen den aurreproiektuan agertzen diren ezaugarriak izango dituzte.

BIGARRENA: Aipatu argiztapen lanak ordaintzeko, Tolosako Udalak **EHUN ETA HOGEITA LAU MILA ETA ZORTZIEHUN EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMOKO** (124.884,94 EURO) diru-laguntza emango dio "Tolosa CF" kirol elkarteari.

Kopuru horretatik aurreikusita edo kontsignatuta, soilik, **HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO** (77.872 EURO) daude, eta gainontzekoa (47.012,94 EURO) aurrekontuetan kontsignazioa egitearen menpean dago. Hala ere, Udalaren nahia da 2003an Udalak tramitatzeko dituen kreditu aldaketetan aipameneko kontsignazioak egitea.

Bestalde, Tolosa C.F. elkarteak zuritu egin beharko du jasotako diru-laguntza, indarrean dauden arauak horretarako xedatzen duten dokumentazioaren bidez.

Udalak diru-laguntza, indarrean dagoen kontsignazioaren arabera emango du, dagozkion faktura eta ziurtagirien erregistro datatik gehienez ere 90 egunera.

Estadio, con lo cual se posibilitara, también, un mejor aprovechamiento de todas las instalaciones, tanto las destinadas a la práctica de Atletismo como para el fútbol y el resto de actividades que se vienen desarrollando en el recinto.

V.- Toda esta mejora incide en una potenciación de la práctica deportiva, servicio este atribuido a la competencia local de conformidad con lo establecido en el art. 25, apartado m) de la Ley de Bases y en los términos de la legislación del Estado y Autonómica vigentes en cada momento sobre dicha materia.

Por todo ello, el Ayuntamiento se halla dispuesto a la financiación de la citada nueva instalación de iluminación, y con tal fin las partes intervinientes formalizan el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, estableciendo las siguientes

CLAUSULAS

PRIMERA.- La sociedad deportiva "TOLOSA CLUB DE FUTBOL" se compromete a la realización de las obras para la iluminación del Estadio de Berazubi. Esta obra tendrá las características que se reflejan en el anteproyecto que se adjunta a este documento.

SEGUNDA.- Con el objeto de financiar los referidos trabajos de iluminación, el Ayuntamiento de Tolosa aportará a la sociedad deportiva "Tolosa CF" una subvención de **CIENTO VEINTICUATRO MIL OCHOCIENTOS OCHENTA Y CUATRO CON NOVENTA Y CUATRO EUROS** (124.884,94 EUROS).

Ahora bien, de esta cantidad únicamente están previstas o consignadas **SETENTA Y SIETE MIL OCHOCIENTOS SETENTA Y DOS EUROS** (77.872 euros), y el resto (47.012,94 euros) se condiciona a su consignación presupuestaria, manifestando que es voluntad de la corporación su inclusión en las próximas modificaciones de crédito que el Ayuntamiento tramite en el 2003.

De todas formas, el Tolosa CF deberá justificar la subvención recibida aportando la documentación necesaria que a tal efecto previene la normativa en vigor

El Ayuntamiento abonará la subvención, dentro de la consignación vigente, en el plazo máximo de 90 días contados a partir de la fecha del registro de la/s facturas-certificaciones correspondientes.

2003.04.15

HIRUGARRENA- "Tolsa CF" kirol elkarteak, beharrezko diren txosten teknikoak aurkeztuz, lanak ongi egiten ari direla eta argiztapen-sistemak dokumentu honi erantsita dagoen aurreproiektuan ezarritako baldintzak betetzen dituela bermatu beharko du.

Gainera, behar-beharrezkoa izango da lan honetarako izendatuta egongo den udal teknikariak, hain zuzen, bukatutako instalazioaren eta, beharrezkoa balitz, lanen faseren baten edo guztien idatzizko txostena aldekoa izatea.

Bestalde, lanak egingo dituen enpresari exijitu beharko zaio, eta Udalaren aurrean hura egiaztatu, lanak bi urteko epean ongi bukatzeko bermea. Horretarako, obra nagusiaren kostuaren % 6ko abala jarri beharko du Udalaren alde.

Abal horretan konstaraziko da Udalak hala onesten duenean iraungirik geratuko dela hura.

LAUGARRENA- Estadioaren erabilpenari dagokionez, bi alderdiek berronesten dituzte atletismoko pista eta inguruko instalazioen erabilerarako 2000ko abuztuaren 22an onartu zuten hitzarmenean ezarritako baldintzak.

Era berean, eta kontuan izanda belar naturaleko futbol zelaiaren erabilpenak mugatua izan behar duela, bere ustiapena Tolosako taldeen beharrak eta kirol kategoria kontuan hartuz ezarriko da, eta "Tolosa C.F."k, ahal duen neurrian eta orain arte egin izan duen moduan, TOLOSALDEA Kirol Elkarteari, jokatu behar dituen partida ofizialetarako, zelaia utziko dio.

BOSGARRENA- Lanen jarraipena egiteko eta, ondoren, hitzarmenean agertzen diren instalazioek egoki funtziona dezaten, 4 ordezkari batzorde bat eratuko da: bi "Tolosa CF"ekoak, eta beste bi Tolosako Udalekoak. Ordezkari hauek lan hauek betetzeko izendatuko alderdi bakoitzak:

a) Hitzarmen honetan zehazturiko ekintza guztien jarraipena egitea, norberak bere konpromisoak behar bezala ditzan erabakiz.

b) Aurreikusitakoa ezartzeko oztopo izan daitezkeen arazoak gaintitzen laguntzea.

c) Informatzea eta hitzarmen honetako ekintzak ongi betetzen direla bermatzeko neurriak proposatzea.

d) Hitzarmenak berak sor ditzakeen

TERCERA- La sociedad deportiva "Tolosa CF" deberá garantizar mediante los oportunos informes técnicos que la obra se ha realizado correctamente y que la iluminación reúne los requisitos estipulados en el anteproyecto que se adjunta.

También, será condición necesaria que el técnico municipal al efecto designado emita informe favorable de la instalación terminada e incluso, si procediera, de alguna de las fases o de todas ellas.

Además se deberá exigir a la empresa adjudicataria de los trabajos, y acreditar tal extremo ante el Ayuntamiento, que garantice la buena ejecución de las obras por un plazo de dos años, depositando al efecto un aval a favor del Ayuntamiento por importe del 6% del coste de la obra principal.

En dicho aval se deberá hacer constar que se dará la cancelación de la misma una vez que así lo apruebe el Ayuntamiento.

CUARTA- En cuanto a la utilización del Estadio, ambas partes ratifican las condiciones recogidas en el Convenio suscrito entre ambas entidades en fecha 22 de Agosto de 2000 sobre uso de la pista de Atletismo e instalaciones anexas.

Igualmente y teniendo en cuenta que el uso del campo de fútbol de hierba natural debe ser restringido, el aprovechamiento del mismo se llevará a cabo teniendo en cuenta las necesidades y categoría deportiva de los distintos clubes de Tolosa, comprometiéndose el Tolosa CF a permitir, en la medida de lo posible y tal como lo viene haciendo, el uso del Estadio al club TOLOSALDEA K.E. en la disputa de sus partidos oficiales.

QUINTA- Para el seguimiento de la obra y posterior funcionamiento de las instalaciones que se contemplan en este convenio, se constituirá una comisión compuesta por 4 representantes, 2 del Tolosa CF y otros 2 del Ayuntamiento de Tolosa, que serán designados por cada parte para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando el adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la aplicación de lo previsto.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear

2003.04.15

interpretazio eta exekuzio arazoak konpontzen saiatzea.

Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean, eta bi alderdietako edozeinek proposatuta, batzordea bildu egingo da, hitzartutakoaren garapen egokiak agintzen duenean. Batzordeko presidentzia eta idazkaritza txandakakoak izango dira, eta dokumentu honetan aurreikusita ez dauden gaiei Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoko eta Administrazio Prozedura Arruntaren azaroaren 26ko 30/92 Legeko II ataleko II tituluan erregulatuta dauden organo kolegiatuen erregimena aplikatuko zaie.

SEIGARRENA.- Dena den, instalazioetako lanak hasi aurretik, edo eskatzen zaion beste edozein unetan, "Tolosa CF" k lanak hasteko edo hasitakoak erregulatzeko bidezko diren baimen guztiak eskuratu beharko ditu.

ZAZPIGARRENA.- Emandako diru-laguntzarekin erositako materialak, batik bat altzariak edo kokatuta dauden lekutik kenduta higiezinari kalte egiten ez dion beste edozer gauza, bere funtzioak garatzeko eragozpen ez den neurrian, Tolosako Udalarenak izango dira.

Instalazioen mantenimendu kostua eta kontsumo elektrikoarena Tolosa CF elkartearen kargura izango dira.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honetan erregulatu ez denari dagokionez, hurrengo agiri hauei jarraituko zaie: 1986ko ekainaren 20an Muñoa Fundazioko presidentek, "Tolosa CF"ren presidentek eta Tolosako alkateak sinatutako dokumentua, 1987ko otsailaren 2an Udalak "Tolosa CF"rekin hitzartutakoa eta 2000ko abuztuaren 22an Udalak "Tolosa CF"rekin egindakoa.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmena indarrean sartuta geratuko da eta bi alderdiak hura betetzera beharturik daude hitzarmen hau sinatzen den unetik bertatik, eta hala iraungo du "Tolosa CF" Berazubi Estadioaren errentari den bitartean, indarrean dagoen kontratuaren arabera.

Eta adostasun seinale gisa, bi alderdiek dokumentu honen hiru kopia sinatzen dituzte, efektu bakarrerako, goiburuan agertzen den lekuan eta datan.

el convenio.

Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de lo convenido, siendo rotatoria la presidencia y la secretaría de la misma, y en lo no previsto en este documento será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulados en el capítulo II del título II de la Ley 30/92, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

SEXTA.- De todas formas antes de proceder a los trabajos de la instalación y, en su caso, en el momento que se le requiera, el Tolosa Club de Fútbol deberá obtener todos los permisos necesarios para iniciar los trabajos o legalizar los ya ejecutados.

SEPTIMA.- Los materiales adquiridos con el importe de la subvención concedida, sobre todo los muebles y aquellos otros que se puedan separar sin detrimento del inmueble al que estuvieran unidos, sin que por ello éste pierda las posibilidades de desarrollar la función al que está destinado, serán de propiedad del Ayuntamiento de Tolosa.

El coste de mantenimiento de la instalación así como el consumo eléctrico correrán a cargo del Tolosa CF.

OCTAVA.- En lo no regulado en este convenio se estará a lo acordado y formalizado en los documentos de 20 de Junio de 1986 entre el Presidente de la Fundación Muñoa, el Presidente del Tolosa CF y el Alcalde de Tolosa, el de 2 de Febrero de 1987 entre el Ayuntamiento y el Tolosa CF, y el de 22 de Agosto de 2000 entre el Ayuntamiento y el Tolosa CF.

NOVENA.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta tanto en cuanto el Tolosa CF mantenga la condición de arrendataria del Estadio de Berazubi, según contrato en vigor.

Y en prueba de conformidad, ambas partes firman el presente documento por triplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2003.04.15